
Ikasbil HAUR	Erosketa-zerrenda	BAGOAZ!	A1B25
			Ikasgelan

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Zerrendarik egiten duzu?

Denok ez dugu berdin jokatzen erosketak egitean. Zer ohitura dituzu zuk? Osatu taula eta komentatu lagun batekin.

Zure ohiturak erosketak egitean			
	Zerrendarik egiten duzu?	bai /ez	*- Batzuetan egiten dut zerrenda, baina ez beti.* *- Normalean bai, begiratzen diet prezioei.* *- Nik ez diet begiratzen eskaintzei. Behar dudana erosten dut, eta kito!* *- Aste barruan ez, baina asteburuan beti egiten dut kapritxoren bat.* *- Beti erosten dut litxarreriaren bat.*
	Eskaintzei begiratzen diezu?	bai /ez	
	Kapritxorik betetzen duzu?	bai /ez	

○ ***Zuk zerrendarik egiten duzu?***
● ***Ez. Ez dut ohiturarik.***
○ ***Nik badaezpada ere zerrenda egiten dut; bestela, gauza pila bat erosten dut.***
● **Eta kapritxorik betetzen duzu?**
○ ***……..***

Komentatu talde osoaren aurrean ohituraren bat.

Ikasbil HAZE	**Erosketa-zerrenda**	BA GO AZ!	**A1B25** **Ikasgelan**

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Audioa ulertzen

Entzun elkarrizketa, aukeratu erantzun zuzena eta adostu erantzunak lagunekin.



- Zenbat diru daukate potoan?
☐ 30 ☐ 24 ☐ 30 eta piko

- Erosketa-zerrendan bi produktu daude janari-edariak ez direnak.
……..

- Non egingo dituzte erosketak?
☐ Auzoan ☐ Erdialdean ☐ Hipermerkatu batean

2.2 Erosketa-zerrenda

Zer gauza erosiko dituzte? Ikusi bideoa eta idatzi zerrendako produktuak.

	Barazkiak	*eskarola* *....*
	Pasta	…
	Fruta	…
	Besterik	…

3- ENTZUN ONDOREN

3.1. Zer erosiko dugu?

Josuk eta Amaiak arrazoiak ematen dituzte zer erosi erabakitzeko. Irakurri Josu eta Amaiaren arteko elkarrizketa eta idatzi taulan arrazoi horiek.



JOSU.— Amaia, zenbat diru geratzen da erosketak egiteko?
AMAIA.— Hogeita hamar eta zentimo batzuk.
JOSU.— Ba ez da diru gehiegi aste osorako.
AMAIA.— Moldatuko gara. Nondik hasi nahi duzu?
JOSU.— Oinarrizko gauzak erosi behar ditugu: makarroiak.
AMAIA.— Makarroiak? Berriz? Josu, garbi jan behar dugu.
JOSU.— Bai. Pasta ona da kirola egiteko.
AMAIA.— Baina barazkiek ez dute kalterik egiten.
JOSU.— Bai, baina makarroiak bai, mesedez.
AMAIA.— Ados. Eta fruta pixka bat: sagarrak, laranjak...
JOSU.— A, eta edari pixka bat ere bai.
AMAIA.— Josu, ez dago dirua horretarako.
JOSU.— A, pazientzia!
AMAIA.— Bueno, esnea, gailetak, kafea...
JOSU.— Eta kito!

Zer erosi esateko arrazoiak
Barazkiek ez dute kalterik egiten.


Janariari eta diruari buruz hitz egiten dute. Zer esaldi esaten dituzte diruari buruz? Idatzi taulan esaldi horiek.

Diruaz hitz egiteko
Ez dago dirurik horretarako.

Ikasbil HADE	**Erosketa-zerrenda**	BAGOAZ!	**A1B25** **Ikasgelan**

3.3 Erosketa-zerrenda landetxera joateko

Etxe bat alokatu duzue egun bat pasatzeko. Bertan bazkaldu, afaldu eta gosaldu egin behar duzue. Etxean ez dago janaririk, zuek egin behar dituzue erosketak aurretik.
Talde txikitan jarri eta egin zerrenda: erabaki zer janari eta edari erosi. Diru bat jarri behar duzue erosketak egiteko (20-30 euro bakoitzak), eta horrekin moldatu. (Egin erosketak online, helbide honetan)



Komentatu talde osoaren aurrean zuen taldean erabaki duzuen zerrenda. Adostu denon artean zerrenda definitiboa.